



## Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



<b>agudo</b> laster, arin	<b>Agudo</b> mugitu da handik irten nahirik.	59
<b>ahalik eta -en</b> albait -en	Autoa ziztu bizian jarri dut martxan Nazarioengana <b>ahalik eta</b> azkarren iristeko.	64
<b>aharrausika</b> aho-zabalka	Baina, nekearen erruz, laster hasi naiz <b>aharrausika</b> .	50
<b>aise</b> erraz	Nire bideari jarraitu zioten bi lagunek eta, ni bezain txikiak izanik, <b>aise</b> kabitu ziren leihoaren markotik.	21
<b>aldamenean</b> alboan	...hilobietara daraman bidearen <b>aldamenean</b> zelai berde zabal bat dago, zuhaitz ugariarekin.	10
<b>alderrai</b> noraezean, jitoan, errari	...ez baitut nahi mamu bat bezala hortik zehar <b>alderrai</b> ibili.”	23
<b>altzifre</b> nekosta ( <i>ciprés</i> )	Gorritz tindaturiko zerura altxatzen diren <b>altzifre</b> garaietatik txorien txorrotxio alaia dator.	5
<b>ametitu</b> onartu, baieztatu	— Ongi. Gainera, zer egin behar dugun erabakitzeko ongi etorriko zaiguk — <b>ametitu</b> nuen.“	19
<b>amultsu</b> maitekiro, goxo	...nire Lolitak, era ezin <b>amultsuagoan</b> , konpainia egin niezaiokeela adierazi zidan.	70
<b>apika</b> agian, beharbada	...gainera, <b>apika</b> , hildakoa bertan dago eta berak derrigor begiratu beharra dauka.	9
<b>arrapostu</b> erantzun, ihardetsi	— Halako kontuak azaltzen badira zerbaitegatik izango da! — <b>arrapostu</b> du berak.	59
<b>arras</b> guztiz, erabat	Hango urak bare egon ohi dira, baina arratsalde hartan, <b>arras</b> bizitu ziren...	49
<b>artean</b> oraindik	...aho zabalik begiratzen dio begi handidun animalari, <b>artean</b> sinesgogor.	63
<b>asaldatu</b> aztoratu, larritu	— Ederki! A zelako sustoa harekin topo egiten badugu! — <b>asaldatu</b> da Ander.	29
<b>ase</b> bete, gogobete	— Baina ez gara kuriositatea <b>ase</b> barik bueltatuko, ez?	34
<b>aurki</b> laster	...ez zen gozoa informazio hura jasotzea, eta errezelo pittin batekin joan nintzen <b>aurki</b> nirea izango zen bizitokira.	84
<b>barreiatu</b> sakabanatu, zabaldu	Edalontzi bat zorura erori da, eta kristala, mila puska eginda, lurrean zehar <b>barreiatu</b> da.	52
<b>bazterreratu</b> apartatu	...lagunak korrika aldentzen ziren bitartean, ni lurrean etzan eta <b>bazterreratu</b> egin nintzen.	22
<b>bederen</b> behintzat, behinik behin	Gela honek badauka argia, <b>bederen</b> , pentsatu du.	10
<b>begiz jo</b> erreparatu, horretan fijatu	...gela miatu ostean, eskailera bat <b>jo</b> du <b>begiz</b> .	8
<b>berretsi</b> konfirmatu, baieztatu	— Horrexegatik! Azkenean, arrazoi izango dik. Bekatuak ordaindu egin behar dituk — <b>berretsi</b> zuen.	21
<b>bidenabar</b> bide batez, iragaitzaz	<b>Bidenabar</b> , berak niri begiratuko ote zidan atezuan egon nintzen.	70
<b>bihurgune</b> kurba, errebuelta	<b>Bihurgune</b> baten amaieran, bat-batean, zerbait igaro da gure aurretik eta balazta sakatu dut.	64
<b>bisaia</b> aurpegia, begitartea	Malutek nire <b>bisaia</b> dute jomuga, eta, ikustea galarazten didate...	46
<b>danba</b> kolpe hots zolia	<b>Danba!</b> Itxi den ate baten hotsak iratzarri nau.	53



<b>datza</b> etzanda dago, luze	Ohean gizon bat <b>datza</b> , gorpu.	11
<b>delibero</b> erabakia	Unea profitatu eta mendi ibilaldia egiteko <b>deliberoa</b> hartu dut, elurrarekin olgetan egiteko esperantzarekin.	41
<b>demontre</b> arraio, deabru	Etxera joateko gereziondotik igaro ezin dugunez, zer <b>demontre</b> egin behar diagu?	19
<b>derrigor</b> nahitaez, ezinbestean	...gainera, apika, hildakoa bertan dago eta berak <b>derrigor</b> begiratu beharra dauka.	9
<b>desenkusatu</b> aitzakia jarri, ezina adierazi	—Bidean Xabierrekin egin dugu topo eta... <b>desenkusatu</b> da Usoa.	
<b>dezente</b> askotxo	Oinez <b>dezente</b> ibili behar izan genuen arren, bidaia atsegina izan zen...	14
<b>dir-dir</b> diz-diz	Izarrek <b>dir-dir</b> egiten dute zero ilunean, ilargi...	25
<b>ei</b> omen	—Hala diote. Pozoitu egin <b>ei</b> zituen.	45
<b>epitafio</b> hilarrietako testua, hild. omenez	Ez neukan zalantzarik harena zela, <b>epitafio</b> deigarria zeukalako idatzita.	95
<b>eragotzi</b> galarazi, oztopatu, trabatu	—Laura eta bion arteko maitasuna ez du inork <b>eragotziko</b> –egin du deiadar, haserre, Jaxintok.	37
<b>eragozpen</b> traba	...hortaz, zein <b>eragozpen</b> zagok hi hara ez joateko?	7
<b>erdiragarri</b> lazgarria, min handia adieraziz	Gizonak lantu <b>erdiragarriak</b> botatzen ditu oinazearen oinazeaz, lurra odol gorritz tindatzen den bitartean.	38
<b>erreparatu</b> begitu, zerbaitez ohartu	...eskuetan zeukanari <b>erreparatu</b> genion: aizkora bat zen!	20
<b>erretreta</b> erretiroa, jubilazioa	Baina, idazkari atsegin bati esker, sarjentua bizirik zela jakin nuen. Hori bai, <b>erretreta</b> hartuta zegoen.	94
<b>erretxinduta</b> apur bat haserre ( <i>pikatuta</i> )	—Alua! Ezin zara fidatu jendeak dioenarekin –bota du pittin bat <b>erretxinduta</b> .	48
<b>errezelo</b> susmo txarra	...ez zen gozoa informazio hura jasotzea, eta <b>errezelo</b> pittin batekin joan nintzen aurki nirea izango zen bizitokira.	84
<b>errieta egin</b> agiraka egin, bronka bota	Haiekin elkartu orduko <b>errieta egin</b> nion Urkori...	17
<b>esamesa</b> zurrumurrua, txutxu-mutxua	Ez, nik ez diet <b>esamesa</b> horiei inolako beldurrik.	6
<b>estropozu egin</b> behaztopatu, tupust egin	...halako batean, <b>estropezu egin</b> du zoruan dagoen zerbaiten erruz.	9
<b>gaztigatu</b> ohar egin	—Zergatik egin zenuen, Lazaro, zergatik? – <b>gaztigatu</b> du ahotsak.	11
<b>gerturatu</b> hurbildu, gerturatu	...trena <b>gerturatu</b> egin zen, eta bai, nire albotik igaro zen.	23
<b>gizajo</b> gaixoa, koitadua	Emaitzek esango zigutek berandu baino lehen <b>gizajo</b> hau erruduna den ala ez.	75
<b>goibel</b> tristeia, hitsa	Ez dakit zer dela-eta iritsi naizen gela <b>goibel</b> honetara.	67
<b>gorpu</b> hilotz, hilda	Ohean gizon bat <b>datza</b> , <b>gorpu</b> .	11
<b>harlauza</b> harri zabala	<b>Harlauza</b> karratuz apainduriko enparantzak 15 urte inguruko beste bikote bat agertu da...	27



<b>hator</b> etor hadi	— <b>Hator</b> hi ere, Jon —esan zidan.	22
<b>haztatu</b> ukitu, ukimenarekin bilatu	...eskuarekin apur bat <b>haztatu</b> ondoren aurkitu du.	10
<b>hilkutxa</b> feretroa	Hilobien sail zabalean, lur-emaileak <b>hilkutxa</b> bat lur azpian sartu eta marmol zuria jarri du gainean...	5
<b>hilotz</b> gorpua, hildakoa	Negarrez ari da, tapakia kenduta daukan hilkutxaren barnean emakume lirain baten <b>hilotza</b> baitago.	35
<b>hizki gotiko</b> hizki germanikoa (Gutenberg)	...marmol zuria jarri du gainean, zeinean <b>hizki gotikoz</b> idatzita dauden hilberriaren izen-abizenak.	5
<b>hizpide</b> hizketa gaia, mintzagaia	...bertan elkartu dituen motiboa hartu dute <b>hizpide</b> .	25
<b>hots egin</b> dei egin, deitu	Handik <b>hots egin</b> ditek, behintzat.	6
<b>hozkirri</b> freskoa	Udazkeneko giroa <b>hozkirria</b> da, eta mutilak hankak mugitzen ditu berotu nahirik.	25
<b>idoro</b> aurkitu, topatu	...eta ingurunetan ere ez dut Ixabel <b>idoro</b> .	53
<b>ihar</b> zimela, hezurtsua	50 urte inguruko gizon <b>iharrak</b> ez du oso gustura hartu berria.	6
<b>imintzio</b> keinua, gestua	Baina agureak ez du <b>imintzio</b> nimiñoena ere egin haren albora ailegatu garenean.	65
<b>iradoki</b> aditzera eman, sujeritu	Eta, haietako batean, berriro Anaisekin izan zela <b>iradokitzen</b> zuen.	92
<b>iratzarri</b> esnatu, itzartu	Danba! Itxi den ate baten hotsak <b>iratzarri</b> nau.	53
<b>irmo</b> tinko, ziurtasunez	Zeharo beharrezkoa duk hi hara joatea, Lazaro —bota dio, <b>irmo</b> , nagusiak—.	7
<b>irudikatu</b> imajinatu	Nola egiten dugun barre gidariaren aurpegia <b>irudikatzean!</b>	13
<b>itaundu</b> galdetu	—Ziur? — <b>itaundu</b> du Usoak	29
<b>itzuri</b> saihestu, ekidin	Nik, ordea, burua aurrerantz eraman nuen, eta haren eskuari <b>itzuri egin</b> nion.	17
<b>izpitu errari</b> pertsona baten mamua	—Ez al daukak entzuna? Ustez, <b>izpiritu errari</b> bat zabilek etxe barnean.	6
<b>jardun</b> ekintza, portaera	...nire lagunen <b>jarduna</b> ikusita, kontu handiz egin nuen ibilbidea.	16
<b>kanila</b> txorrota	<b>Kanila</b> ireki zuenean likido gorri bat isurtzen zuela ikusi zuen.	78
<b>karrika</b> kalea	...neska bat agertu da <b>karrikatik</b> eta bere ikaskidea agurtu du.	25
<b>kirrinka</b> irrintzi modukoa	...atea zabaldu egin da <b>kirrinka</b> hotsa eginez.	8
<b>kliskatu</b> keinu egin	—Ba, nik gustura errepikatuko nuke... Zuk ez Oihane? —tximaluzeak begia <b>kliskatzen</b> dio neskari.	40
<b>kuriositate</b> jakin-mina	—Baina ez gara <b>kuriositatea</b> ase barik bueltatuko, ez?	34
<b>kuzkurtuta</b> bilduta, batuta	Karakolaren antzera <b>kuzkurtuta</b> dago eserlekuan.	56



<b>laga</b> utzi	Baina ez dut uste bertan seko <b>laga</b> dudanik.	58
<b>lantu</b> kexa aienea	Gizonak <b>lantu</b> erdiragarriak botatzen ditu oinazearen oinazeaz, lurra odol gorriz tindatzen den bitartean.	38
<b>lantzean behin</b> noizean behin	“Lantzean behin, elkarri begiratzen zioten maitekiro.”	104
<b>lazarri</b> ikaragarria, izutzeko modukoa	Beste batzuetan, aldiz, izen hori jasotzeko arrazoia gertakari ilunen bat izan zen, eta norbaitek, han, krimen <b>lazarri</b> bat gertatu zela aipatu zuen.	9
<b>libertitu</b> dostatu	...bihurrikeriaren bat egitea gustuko dugu; <b>libertitzearren</b> , egunari gatz pixka bat botatzearren.	13
<b>limurtzaile</b> liluratzen duena, xarmagarria	Niri so, mingain gorria atera eta dantzari egin du, era <b>limurtzailean</b> .	52
<b>lirain</b> eder-ederra (emak.)	Negarrez ari da, tapakia kenduta daukan hilkutxaren barnean emakume <b>lirain</b> baten hilotza baitago.	35
<b>malkartsu</b> bidexka aldapatsu hondatua	Bide <b>malkartsuetan</b> barrena autoz gidatu eta gero iritsi naiz baserri horren atarira.	55
<b>maltzur</b> azpikeriaz, intentziaz	—Ez dut beldurrik sumatuko zure erantzunean, ezta, Usoa? —galdetu dio <b>maltzur</b> Kepak.	27
<b>maluta</b> elur zatitxoa	<b>Maluta</b> oparoren mendean, urratsak alferrik ematen ari ote naizen susmoa piztu zait.	42
<b>maratila</b> kisketa, txaramela	Hortaz, ateko <b>maratila</b> eskuetan hartu, birarazi, eta... atea zabaldu egin da.	9
<b>mardul</b> lodikotea, potoa	Izan ere, nire aurrean gizon <b>mardul</b> bat agertu zen, "lapur madarikatuak!" oihuka.	17
<b>miatu</b> arakatu, aztertu	...gela <b>miatu</b> ostean, eskailera bat jo du begiz.	8
<b>milikatu</b> mihia ateraz dastatu	Lantzean behin, makilatxotik oratu eta modu sentsualean <b>milikatzeari</b> ekin zion.	69
<b>mozolo</b> ergela, inuzentea, leloa	Txantxetan dabil <b>mozolo</b> hau.	30
<b>nonbait</b> antza, dirudienez	...ez zegoen gizonaren arrastorik. <b>Nonbait</b> , nekatu eta etsi egin zuen.	19
<b>olgetan</b> jolasean	...elurrarekin <b>olgetan</b> egiteko esperientziarekin.	41
<b>oparo</b> ugari, ondo hornitua	Gizon itzela da lur-emailea, aurpegian bizar beltz <b>oparoa</b> duena.	37
<b>oratu</b> heldu, eutsi	Lantzean behin, makilatxotik <b>oratu</b> eta modu sentsualean milikatzeari ekin zion.	69
<b>ortzi</b> zerua	...elur-tanta finak erortzen hasi dira <b>ortzitik</b> .	42
<b>osin</b> zuloa sakona	Itomena sartu zait, elurrez inguratuta dagoen <b>osin</b> batean bainago.	43
<b>osteratxo</b> ibilalditxoa, bueltatxoa	—Total, zer da ba kanposantura joatea <b>osteratxo</b> bat egitera...?	27
<b>otu</b> bururatu, okurritu	Egunean <b>otutzen</b> zaiguna egiten dugu.	14
<b>patrika</b> poltsikoa, sakela	Guztiarekin ere, lepokoa <b>patrikan</b> sartu eta berak esandako etxalderantz zuzendu ditut urratsak.	45
<b>pinpirin</b> apaina, panpoxa (neska)	Usoa eta Ander. Bata neskatila ilehori <b>pinpirina</b> ...	27



<b>plazaratu</b> atera, kanporatu	Markosek barneko kezka <b>plazaratu</b> du...	64
<b>printza</b> izpia, irrada	Baina eguzkiaren lehen <b>printzak</b> leihotik barneratu ziren idazlan haien irakurketa bukatu nuenerako.	93
<b>profitatu</b> aprobetxatu, baliatu	Unea <b>profitatu</b> eta mendi ibilaldia egiteko deliberoa hartu dut, elurrarekin olgetan egiteko esperantzarekin.	41
<b>purrustaka</b> protestaka, haserre keinuekin	Usoa atzean gelditu da baina, berehala, haiengana jo du, <b>purrustaka</b> ...	32
<b>samin</b> atsekabea, tristura	Piano ajo eta idatzi baino ez omen zuen egiten, bere <b>samina</b> arintze aldera.	88
<b>samur</b> goxoa, atsegina	Lazaro, bazakiat krimen odoltsu haren lekukoa izatea ez zela <b>samurra</b> izan hiretzat.	7
<b>sargori</b> bero-astuna	Egun <b>sargori</b> batean, bi alabak hor goiko erre kara joan ziren igeri egitera.	48
<b>sinesgogor</b> eszeptiko, sinestu ezinik	...aho zabalik begiratzen dio begi handidun animalari, artean <b>sinesgogor</b> .	63
<b>so</b> begira	Niri <b>so</b> , mingain gorria atera eta dantzari egin du, era limurtzailean.	52
<b>sobera</b> lar, oso	Kanposantua L. herritik aparte izan arren, ez dago <b>sobera</b> urruti...	28
<b>sorgortu</b> ezindu, paralizatu	Gainera, gorputz osoa <b>sorgorturik</b> , zurrun gelditu zitzaidan, eta ezin izan nuen zirkinik ere egin.	71
<b>supituki</b> bat-batean, ustekabean	<b>Supituki</b> , eszena fantasmagoriko honetako bi protagonistak niregana hurbildu dira.	52
<b>susmo</b> aierua, irudipena	Maluta oparoen mendean, urratsak alferrik ematen ari ote naizen <b>susmoa</b> piztu zait, galdu egin ote naizen susmoa, alegia...	42
<b>tamalez</b> zoritxarrez, damurik	<b>Tamalez</b> , etxea miatzen segitu beharko du.	10
<b>tarteka-marteka</b> noizean behin	... <b>tarteka-marteka</b> , bihurrikeriaren bat egitea gustuko dugu.	13
<b>titi-zorro</b> bularretakoa	...botoiak askatzen hasi da Jaxinto eta, amaitu duenean, beltz koloreko <b>titi-zorroa</b> agerian gelditu da.	36
<b>txapla egitea</b> uretan saltoka irristatzea	Beti lortzen zuen bere harriek sei bat <b>txapla egitea</b> uraren gainean...	14
<b>Txerren</b> deabrua	—Bera, nor? <b>Txerren!</b>	61
<b>txilio</b> oihua, garrasia	Markos delakoa horrorezko <b>txilio</b> espantagarriak jaurtitzen hasi da.	61
<b>tximaluze</b> ile luzekoa, zapaztoa	—Ba, nik gustura errepikatuko nuke... Zuk ez Oihane? — <b>tximaluzeak</b> begia kliskatzen dio neskari.	40
<b>txintik esan gabe</b> isil-isilik	Hark <b>txintik</b> ere <b>esan gabe</b> bete zuen agindua.	19
<b>txoko</b> bazterra	Gela oso handia da, ordea, eta kanpoko argitasuna ez da <b>txoko</b> guztietara hedatzen.	9
<b>txorrotxio</b> txio txioa, txorien kantua	Gorritz tindaturiko zerura altxatzen diren altzifre garaietatik txorien <b>txorrotxio</b> alaia dator.	5
<b>ubide</b> kanala	Ondoren, zailtasunik gabe zapaldu zituen gainontzeko harriak eta <b>ubidearen</b> beste muturrera iritsi zen.	15
<b>uluka</b> uhurika, auhenka, alarauka	Otsoren bat dabil inguruotan, eta <b>uluka</b> hasten da ordu honetan.	50



<b>xarmagarri</b> liluragarria, enkantua	Lolita, nire neskatila <b>xarmagarria</b> ...	72
<b>xerra</b> xafla, puska zapala	—Tomate entsalada lehendabizi, eta gero haragi <b>xerra</b> bat.	57
<b>zertzelada</b> xehetasuna, zehaztasuna	...nik ez nuen haren berririk, nire ezagutza mugatua zelako, eta haren bizitzaren <b>zertzeladak</b> kontatzeko eskatu nion.	86
<b>zinez</b> benetan, egiazki	Nik gogoko dut izendapen hori, <b>zinez</b> maite dudalako askatasuna.	67
<b>zirkin</b> mugimendu txikia	Gainera, gorputz osoa sorgorturik, zurrun gelditu zitzaidan, eta ezin izan nuen <b>zirkinik</b> ere egin.	71
<b>zirrargarri</b> pilpiragarria, emozionantea	—Baina, zer diozu? Ez al da <b>zirrargarria</b> izan? –zirikatu du Kepak.	39
<b>ziztu bizian</b> arrapaladan, arineketan	Eskaileraren mailak jaitsi eta <b>ziztu bizian</b> atera da etxetik.	12
<b>zomorro</b> bitxoa, mamorroa	Izan ere, arratoiekin batera ehunka <b>zomorrok</b> harturik zuten lurra...	80
<b>zurbil</b> margula, kolorgea, zuri-zuria	...gorpuzkera sendokoa, baina aurpegia erabat <b>zurbila</b> du.	61
<b>zurrumurru</b> txutxu-mutxua, esamesa	—Bai. Egia esan, guri primeran etorri zitzaizkigun mamu kontuen <b>zurrumurruak</b> , bakean utzi gintuztelako...	104
<b>zurrun</b> gogortuta,	Gainera, gorputz osoa sorgorturik, <b>zurrun</b> gelditu zitzaidan, eta ezin izan nuen zirkinik ere egin.	71